



## GOBERNU BATZARRA

2019.12.03

**Alkatea:**  
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Nerea Letamendia Beloso**  
**Begoña Tolosa Mendia**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Xabier Balerdi Tolosa**  
**Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko Kontuhartzailea:**  
**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi abenduaren 3an, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2019ko azaroaren 26ko bilkurako akta onartzea.
2. Tokiko Gobernuko batzarraren eskumeneko kontratazioaren mahai iraunkorra izendatzea.
3. 2019/2010 dekretuaren berri ematea: 2019/56 Faktura-zerrenda.
4. Dekretu hauen berri ematea: 2019ko azaroaren 18tik 21era (dk2019/1911-2019/1.956).

### **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko azaroaren 26an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2. TOKIKO GOBERNUKO BATZARRAREN ESKUMENEN KONTRATAZIOAREN MAHAI IRAUNKORRA IZENDATZEA.**

#### I.- AURREKARIAK

9/2017 Legeak, azaroaren 8ak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, kontratazio mahaiak xedatzen ditu, kontratazio organoen laguntzaile gisa, hainbat jardunbideetan. Era honetan, aipatutako legearen 320. artikulua ondoko hau xedatzen du: *Kontratatze eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organok, salbu eta 168. artikuluan*



*b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea..*

Tokiko entitateen kasuan, kontratazio mahaien araubidea 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian arautzen da, ondoko ezaugarri nagusiekin:

- Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da.
- Mahaikide izango dira, kasu guztietan, korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duen organoaren titularra.
- Gainontzeko kideak kontratazio-organoak aukeratuko ditu, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean.
- Kontratazio-mahaiak, gutxienez hiru kidek osatu behar dute. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago
- Idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.
- Behin-behineko langileek ezingo dute, ez mahaia osatu, ezta eskaintzak baloratzeko txostenak egin. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean
- Mahaiaren osaketa Kontratatzailearen Profilean argitaratu behar da. Halaber, Kontratazio-Mahai Iraunkor bat eratu ahal izango da.

Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, beste batzuen artean:

- a) 9/2017 Legearen 140 eta 141. artikuluek aipatzen diren aldez aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiria kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatzailleak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.
- b) Lizitatzailen proposamenak baloratzea.
- c) Kasua bada, nabarmenki baxuegiztat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, 9/2017 Legearen 149. artikulua aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.
- d) Kontratua eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileri adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoari, Legearen 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz.
- e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoak eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da hori.



TOLOSAKO  
UDALA

Bestaldetik, Kontratazio Mahaiek izango dituzte Autonomia Erkidegoetako legeek eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duten araudiek ematen dizkien bestelako ahalmenak.

Horretaz gain, Kontratazio Mahaiaren araubide eta funtzionamendua ondoko legeriak arautzen du:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretuak, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duenak.
- 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duenak.

9/2017 Legea indarrean sartu ondoren, ezinbestekoa da baliabide elektronikoak erabiltzea kontratazio publikoan. Gure kasuan, baliabide horiek Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publikoko Plataforman kokatuta daude, eta aipaturiko euskarrian xedaturiko prozedura jarraitu behar da lizitazio elektronikoak gauzatzeko. Prozeduraren konplexutasunak aholkatzen du, alde batetik, Kontratazio Mahai bakarra eta iraunkorra izatea, eta bestetik, kideen kopurua handia ez izatea. Horretaz gain, kontratu bakoitzarekin lotura edo zeresanik duen arloko pertsonalak parte hartuko du aholkulari gisa, eskaintzak baloratzeko garaian.

Halaber, Tolosako udalaren kasuan, Kontratazio Teknikariari dagozkion funtzioak betetzen dituen langilea, bitarteko funtzionarioa da, Administrazio Orokorreko Teknikaria. Udal plantila aztertu ondoren, ez dago beste pertsonal aditurik kontratazio publikoaren arloan. Arrazoi hauek kontuan hartuta, mahaikide gisa izendatzea proposatzen da.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, bere 326.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontratazioko Mahaikideak dagokion eskumeneko kontratazio-organismoak izendatuko ditu.

Aipaturiko Legeak, bere 2. Xedapen gehigarrian, hau zehazten du Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenei buruz:

- Toki-entitateetako alkateen eta lehendakariaren eskumena izango dira, kontratazio-organismo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.
- Kontratu pribatuak, toki-entitateen ondasunen gaineko emakidak eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea: aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, edo hiru milioi euro baino



TOLOSAKO  
UDALA

gehiago bada; ondarea besterentzea ere plenoaren eskumena izango da, balioa ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa bada.

Horiek horrela, kontuan izan behar da Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira, Alkate-Lehendakariak 2019/1228 Alkatetzaren Dekretuaren bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetu zituela 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen espedienteak onartzea, lizitazioari hasiera ematea, esleitzea eta kontratuen kitapena egitea.

Beraz, proposamen honek eragiten ditu Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren eskumeneko kontratazio-jardunbideak.

Horregatik guztiagatik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Udaleko Kontratazio Mahai Iraunkorra eratzea, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan laguntza emateko organo gisa.

**BIGARRENA.-** Kontratazio Mahai Iraunkorra osatuko duten honako mahaikide hauek izendatzea::

- Lehendakaria: Alkate-Lehendakaria, Olatz Peon Ormazabal. Ordezkoa: Alkateordea, Patxi Amantegi Zubiria.
- 1. Bokala: Xabier Balerdi Tolosa. Ordezkoa: Nerea Letamendia Belloso.
- 2. Bokala: Udal Idazkaria, edo haren ordezkoa.
- 3. Bokala: Udal Kontu-hartzailea, edo haren ordezkoa.
- 4. Bokala: Kontratazioko Teknikaria, edo haren ordezkoa.
- 5. Bokala: Kontratazioak eragiten duen udal saileko arduraduna, edo haren ordezkoa.
- Idazkaria (botorik gabe): Kontratazioko administraria, edo haren ordezkoa.

**HIRUGARRENA.** Kontratazioko Mahai Iraunkorreko kideen ordezkapena ondoko kasuetan emango da: hutsik daudenean, bertaratu ezinean, gaixotasunean, edo, orokorrean, halabeharrezko kasuetan.



TOLOSAKO  
UDALA

**LAUGARRENA.-** Lehendakariak eskatuta eta mahaikideek aurretik adostuz gero, Kontratazio Mahai Iraunkorraren bileretan parte ahal izango dute aztertu beharreko gaietan adituak diren udal langileek, edota mahaiak izendaturiko aholkulari adituek. Pertsona hauek hitza izango dute baino ez dute boto eskubiderik izango.

**BOSGARRENA.-** Mahaiaren bilkuretan ondoko araubide juridikoa izango da aplikagarria:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duena, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duena.
- 40/2015 Legean xedaturikoa organo kolegiatuentzako, hauetan arautzen ez diren gaietan.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskadiko Kontratatzaileraren Profilean eta Tolosako udaleko web orrian argitaratzea.

### **3. 2019/2010 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: 2019/56 FAKTURA-ZERRENDA.**

Idazkariak 2019/2010 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

#### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2019/2010**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hau:

56 zenbakia duena, 262.927,38 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



TOLOSAKO  
UDALA

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau*

**EBATZI DU:**

**LENEHIK.-** Onartzea ondorengo faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

*56 zenbakia duena, 262.927,38 eurokoa.*

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Tolosan, 2019ko azaroaren 29an*

*Zinegotzi Delegatuak*

*Nire aurrean,  
Idazkaria*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Begoña Garmendia Vázquez*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

**4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO AZAROAREN 18TIK 21ERA (DK2019/1911-2019/1.956).**

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2019ko azaroaren 18tik 21era bitartean (DK 2019/1911-2019/1956) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

| ZKA  | URTEA | EGUNA      | SAILA/AZPISAILA | DESKRIBAPENA  |
|------|-------|------------|-----------------|---|
| 1911 | 2019  | 18/11/2019 | FESTAK          | TOLOSAKO EKINBIDE ETXEARI 2019KO AZAROAREN 23TIK ABENDUAREN 1ERA, NAZIOARTEKO TXOTXONGILOEN JAIALDIA ANTOLATZEKO, ESPAZIO PUBLIKO EZBERDINEN ERABILERA UZTEA. |



| ZKA  | URTEA | EGUNA      | SAILA/AZPISAILA    | DESKRIBAPENA   |
|------|-------|------------|--------------------|--|
| 1913 | 2019  | 18/11/2019 | OBRAK              | ALONDEGI PLAZAN EGITURA TENKATUA JARTZEKO PROIEKTUA ONARTZEA.  |
| 1914 | 2019  | 18/11/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | GIZARTE LARRIALDIETARAKO DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA. AZAROKO BIGARREN TANDA  |
| 1915 | 2019  | 18/11/2019 | PERTSONALA         | N.C. (IKASTAROA)   |
| 1916 | 2019  | 18/11/2019 | PERTSONALA         | T.R.(IKASTAROA)  |
| 1917 | 2019  | 18/11/2019 | HIRIGINTZA         | OBRA BAIMENA EMATEA PAPER KALEA 9-11   |
| 1918 | 2019  | 18/11/2019 | HIRIGINTZA         | BERDURA PLAZA 4KO ERAIKINA ERABERRITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUAREN ERANSKINA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA                                 |
| 1919 | 2019  | 18/11/2019 | IDAZKARITZA        | KORREO 52-3º ESK. ETXEBIZITZAREN JABEARI 2018 ETA 2019 URTETAKO OHZ GAINEKO ZERGARI DAGOKION KUOTAREN %50EKO DIRU-LAGUNTZA EMATEA. |
| 1920 | 2019  | 18/11/2019 | IDAZKARITZA        | BEOTIBAR 4-3 EZKERRA ETXEBIZITZAREN JABEARI OHZ.REN %50KO DIRU LAGUNTZA EMATEA   |
| 1921 | 2019  | 19/11/2019 | IDAZKARITZA        | LURRALDE BATZORDE IRAUNKORREKO LEHENDAKARIAREN IZENDAPENA  |
| 1922 | 2019  | 19/11/2019 | HIRIGINTZA         | A.B.M.RI EXEKUZIO AGINDUA SAGOBERRI BASERRIRA DOAN BIDEA KONPONTZEKO   |
| 1923 | 2019  | 19/11/2019 | FESTAK             | 2020KO IÑAUTERIETAN POSTUA JARTZEKO BALDINTZAK ARAUTUKO DITUEN OINARRIAK ONARTZEA.   |
| 1924 | 2019  | 19/11/2019 | HIRIGINTZA         | BERRANO BASERRIKO LEGEZTAGARRI DIREN OBREN ADIERAZPENA   |
| 1925 | 2019  | 19/11/2019 | DIRU-BILKETA       | 4061 ESPEDIENTEAN ZERGADUNA HUTS EGINDAKO ZORDUNTZAT HARTZEKO EBAZPENA   |
| 1926 | 2019  | 19/11/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA ADINEKOENTZAT   |
| 1927 | 2019  | 19/11/2019 | DIRU-BILKETA       | 4061 ESPEDIENTEAN OHZ HAINBAT LIKIDAZIO EGUN ONDASUNEN JABEA DENARI ERREKLAMATZEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEKO EBAZPENA            |
| 1928 | 2019  | 19/11/2019 | PERTSONALA         | A.L.A (IKASTAROA)  |
| 1929 | 2019  | 19/11/2019 | BERDINTASUNA       | JABARI PUBLIKOA ERABILTZEKO BAIMENA I. E. B.RI, TRIANGULO PLAZAN, AZAROAREN 23AN 15:30ETATIK 23:00ETARA                            |



| ZKA  | URTEA | EGUNA      | SAILA/AZPISAILA    | DESKRIBAPENA  |
|------|-------|------------|--------------------|---|
| 1930 | 2019  | 20/11/2019 | HIRIGINTZA         | KALE NAGUSIA 28-4. SOLAIRUKO ETXEBIZITZA ERABERRITU ETA ETXEBIZITZAREN GOIKO EGITURAREN SENDOTZE PUNTUALA EGITEKO OBRA BAIMENEAN ADIERAZITAKO AMAIERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA |
| 1931 | 2019  | 20/11/2019 | AZOKAK             | TOLOSA&COR-I BAIMENA EMATEA GAZTE KANPAINA DELA ETA AZAROAREN 23AN  |
| 1932 | 2019  | 20/11/2019 | OBRAK              | ALONDEGI PLAZAKO EGITURA TENKATUAREN SEGURTASUN PLANA ONARTZEA  |
| 1933 | 2019  | 20/11/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | EMETERIO ARRESEKO ZENTRO SOZIALEKO TABERNAKO PREZIOAK EGUNERATZEA.  |
| 1934 | 2019  | 20/11/2019 | EUSKERA            | TOLOSA&CO-REKIN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA.   |
| 1935 | 2019  | 20/11/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | 2019. URTEKO HOTZAREN PROGRAMA ONARTZEA.  |
| 1936 | 2019  | 20/11/2019 | AZOKAK             | L. A. B.ni BAIMENA PINUAK SALTZEKO BERDURA PLAZAN, ABENDUAK 7,14 ETA 21   |
| 1937 | 2019  | 20/11/2019 | PERTSONALA         | G.G. (C.L.-REN ORDEZKAPENA)   |
| 1938 | 2019  | 20/11/2019 | PERTSONALA         | I.O. (ARKITEKTO TEKNIKOA PLAZA BETE EDO AMORTIZARTU ARTE)   |
| 1939 | 2019  | 20/11/2019 | IDAZKARITZA        | IÑAUTERIEKAKO KARROZAK GORDETZEKO PABILOI INDUSTRIAL BAT ALOKATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.  |
| 1940 | 2019  | 20/11/2019 | IDAZKARITZA        | 2019ERRE0014 ESPEDIENTEAREN ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA   |
| 1941 | 2019  | 20/11/2019 | HIRIGINTZA         | ZUMALAKARREGI KALEA 3 BEHERAN OBRAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA  |
| 1942 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA         | EZESTEA SHELTON ASSOCIATES LLC-K AURKETZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTOSARI EZEZKOA   |
| 1943 | 2019  | 21/11/2019 | AZOKAK             | E. G. F.ZI BAIMENA EMATEA TURROIA SALTZEKO EH PLAZAN  |
| 1944 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA         | USABAL 502 ETA 503 DAGOEN ENPRESARI EGINDAKO OBREN LEGALIZAZIOA ESKATZEKO ERREKERIMENDUA  |
| 1945 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA         | FUNDACION MUÑOARI AGINTZEA, BERE LURRETAN KOKATUTAKO TXABOLA ERAISTI DEZATELA   |
| 1946 | 2019  | 21/11/2019 | IDAZKARITZA        | 2019IUDK0006 ESPEDIENTEAREN KALTEAK ESKATZEA  |





TOLOSAKO  
UDALA

| ZKA  | URTEA | EGUNA      | SAILA/AZPISAILA  | DESKRIBAPENA  |
|------|-------|------------|------------------|---|
| 1947 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA       | ALLIRI PASEALEKUA 5EKO FATXADAN KONPONKETAK EGITEKO BAIMENA EMATEA                              |
| 1948 | 2019  | 21/11/2019 | UDALZAINGOA      | ETXE ANIMALIEN ORDENANTZEN ARAUSTEA.  |
| 1949 | 2019  | 21/11/2019 | KULTURA          | HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEARI 2019KO DIRULAGUNTZA IZENDUNA                          |
| 1950 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA       | BIDEBIETA AUZOA 15 ATZEALDEKO LOKALAREN BANATZEKO OBRA BUKAERARI ONTZAT EMATEA                  |
| 1951 | 2019  | 21/11/2019 | KONTUHARTZAILTZA | 55. ZENBAKIDUN FAKTUREN ERLAZIOAREN ONARPENA.   |
| 1952 | 2019  | 21/11/2019 | FESTAK           | IÑAUTERIETAKO KONPARTSEK FERIALEKUA ERABILTZEKO BALDINTZAK ONARTZEA                             |
| 1953 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA       | SAN FRANTZISKO 7-5 ESK. FINKA BANANTZEKO LIZENTZIA EMATEA                                       |
| 1954 | 2019  | 21/11/2019 | AZOKAK           | TOLOSAKO BABARRUNAREN EKOIZLEEN LEHIAKETAKO ETA ODOLKI LEHIAKETAKO SARIDUNEN SARIAK ONARTZEA    |
| 1955 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA       | ANDRE MARIA PLAZA 1-3. EZKERRA ETXEBIZITZAKO LEIHOAK ETA PERTSIANAK ALDATZEKO OBRA BAIMENA      |
| 1956 | 2019  | 21/11/2019 | HIRIGINTZA       | ARTEGIETAKO GAINEAN, URKIZUN, ABELTZAINTZARAKO UR DEPOSITU BAT ERAIKITZEKO AURREKONTUA ONARTZEA |

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**